

IEGABERA GAXUA!

(Gorostola'tar Kauld'ri)

Itun, samñez bete, bildurez josita,
zure eraile gaiztoak ekarita,
egabera gaxua,
arkitzen zera lañi nere magaiian,
ego-bat zauritua, eta il-zorriian,
odolez lotua...
zure begi polifak itzal zabaldarik,
oyekin, zeure oflazeak agertu-nairik...
biziro mindua.

* * *

Nere eskuakin dizut papara ikutu
ta zure biotzeko lañiya oyekin somatu;
biziro estutua
gaxo ori daukazu...; jeralaria!
uferatuaz datorkizu eriotz izugaria;
jegaztixo gaxua!
Iurmen-bila zerade betxorahio jexi,
ta eiztari biotz-geak bereala erauzi;
jeralie gaiztua!

* * *

Ain zera polia, ain zaude otzan,
zure mitak iluna softu-du nigan;
ai norik lezaken,
zure eria osatu, zuri biziya eman,
poz-pozik atsegitzez jun-zaitian egan;
bañan zaude iltzen...
ta zure buru apaña zuaz makurtzera,
jai zer itzala, ai zer kupira,
diazun ematen!

Tene.

EUKELDUN NESKATILAI

NESKATIL ON-ONAREN EREDUBA

Fene'on'ak, Cambrai'ko gongotzale (arzbisipo) samut ta onak, Telemá-que denon bere idazti ezilgoñan, neskatil on-onaren eredu jarañarija eskintzen dauku:

*Antiope, diño Mentor'ak, samura, apala ta zufa da; bere eskubak eztabe lana ezesten; aldija eldu baño len, gauza gustijak gertetan dauz; ixiltzen daki ta egiten; ordu gustijetan arazotula dago, baña iñoz bez ezta urdurituten, gauza gustijak aidi egokijari egiten dauzalako; bere gurasoen etxia atondutia da bere eginbiriak matiena. Gauza gustijak bere ardurarijen egon-aren, etxeko gustijak pozik dagoz beti, gustijak ondo erabiltzen dauzalako, ta beragandik eztaiko girua txarik softuten, beste emakumiakandik softuten diran lez. Begirada bategaz bakarik bere gurea aditu-erazotzen dau; biazekua bakarik agintzen dau; agiraka-egiten dau bigun eta matero. Bere ataren bijotza beragan atsendenduten da, eguzkijaren izpi beruak nekatutako bidezkarria bedar azimian atsendenduten dan lez. Bere gogua, bere gorputza lez, eztauz gurutzeko apaingijaz apañduten: polifa dala eztauz jakia gura. Eztauz itzik egiten biazekua danian baño, ta abua zabalduten danian, liz zurak eta ueste erubagik urtetan diñ. Bere ezipanetik.

Ona emen, orain, Salomon'ak egindako emakume on-onaren ereduba:

*Nor ixango da emakume on-ona bilatuko daun gixon zorunduna? Beran bilatu biaz-da saririk balijotsubena lez. Bere senararen bijotza beragan atsendenduten da ta bere etxian ugariatuna ixango da beti. Edozelan be, naiz senara beragaz biaz-dau baxen ona ixan ezta be, bera beti ixango da ona senaragaz. Bere utsak zuzenduko dauz. Uskeritjetan jolastu - bariñan, beste emakumiak lez, bere esku lan-egingo dau. Nagijak jo-barik, egunsentijaz jagiko da, gustija gertetaiko. Bere besuak, lanian nekatzen ezitran besuak saritan zabalduten dira txirrai laguntzeko. Lanian irabazirik gorputzaren iñdara ta berezko edertasuna dira bere apaingi bakarak. Geidi edo *projimua* ganako matasunaren lagijak zuzenduten dauz bere inñia eta bere itzak. Berak menduten dauz bere semak. Beronek goralduten dabe edonun eta bere senarak dirautso: emakume askok aberastu yonez euren sendijaz, baña euk gustijak baño geyago egon euren ekandun eta ixakerend.

¡Zoruntsubak euren senarakandik onelako itzak entzuten dabezan emakumiak!

Etxakin.

Lukainkia dalakuan...



«Lastertxu aparja» — diño Astakilo'k:
Ostatuko mofoyak ekarten bai-dautso.



Baña periodikuba gogoz irakurten,
Mayan daukon lukainkia gogoz dau aiztuten.



Bitartian txakurak lukainkia artuta,
Silan bira-eginda, damotso bustana.



Eta geure gixonak, kutxilua arturik,
Txakur gaxua izten dau busta — janta-barik.

IDAZTI BARIJA

Aitaren Bidur. — Azuke'tar Bërbiz Mirna jauparijak bidaldu dauku ixen ofegaz berak argifalduriko antzeztijaren ijeki bat. Eskarik asko.

Gogoz irakuri dogu. «Sasi-eskola» ren antzekua da, mutiko-neskatuak antzeztutekua; baña alkar-izketeak mamintsubak ixar-aren, «Sasi-eskola» atseginago yaku. «Aitaren bidur» baño, arek onek baño irakaskixun andijagua daukolako.

Bost abesti daukaz antzeztij oretik eta atsegiu-atseginia ixan yakuz curek.

«La Cervecera del Norte» -- Bilbao
Munich, Orija ta Argija gararduak